

HARREMANAK EKOSISTEMETAN

Izaki bizidun bakoitzak bere beharrak ditu, eta behar horiek ase ditzakeen lekuan bizi da.

Nola esaten zaio horri?

- a. Egokitzaipena. b. Eraldaketa. c. Kokapena.

Animaliek ez bezala, landareek...

- a. ez dituzte elikagaiak hartzen, beraiek ekoizten baitituzte.
b. sustraien bidez hartzen dituzte behar dituzten elikagaiak.
c. beste izaki bizidun batzuk jaten dituzte.

Zein da fotosintesiaren helburua?

- a. Oxigenoa sortzea. b. Elikagai propioa ekoiztea. c. Energia lortzea.

Arnasketan, zer egiten dute estomek?

- a. Karbono dioxidoa kanporatzen dute, eta oxigenoa hartzen dute.
b. Oxigenoa kanporatzen dute, eta karbono dioxidoa hartzen dute.
c. Oxigenoa kanporatzen dute gauean, eta karbono dioxidoa hartzen dute egunean zehar.

Landareek...

- a. arnasketan baino oxigeno gehiago sortzen dute fotosintesian.
b. arnasketan baino oxigeno gutxiago sortzen dute fotosintesian
c. oxigeno kantitate bera sortzen dute fotosintesian eta arnasketan.

Zein dira ekoizleak?

- a. Landareak. b. Landare eta algak. c. Landare, alga eta onddoak.

Nola dute izena beren elikagaia ekoitzi ezin duten izaki bizidunek?

- a. Haragijaleak. b. Kontsumitzaileak. c. Belarjaleak.

Zer dira lehen mailako kontsumitzaileak?

- a. Deskonposatzaileez elikatzen diren animalia belarjaleak.
b. Landareez elikatzen diren animalia belarjaleak.
c. Beste kontsumitzaile batzuek elikatzen diren animalia haragijaleak.

Izaki bizidun batzuek beste izaki bizidun batzuen hondakinak jan eta guztiz deskonposatzen dituzte. Zer dira izaki bizidun horiek?

- a. Deskonposatzaileak. b. Sarraskijaleak. c. Kontsumitzaileak.**

Demagun elikadura-harreman batzuk adierazi nahi ditugula, non zenbait kontsumitzaile zenbait espeziez elikatzen baitira. Zer erabiliko dugu elikadura-harreman horiek adierazteko?

- a. Elikakate bat. b. Elikasare bat. c. Zenbait elikasare.**